

# «Gure ibilbide orria garbi daukagu, eta lau urteotako esperientzia ere bai, aurrera joateko»

**ARANTXA EGUZKIZA** ■ Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen lehendakaria

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEAN LAU URTEAN BEHIN IZATEN DIRA ZUZENDARITZA AUKERATZEKO HAUTESKUNDEAK, ETA 2011KO ABENDUAREN 15EKO BATZARRAK AHO BATEZ ONARTU ZUENEZ, AZKEN ZUZENDARITZA BERRAK ERREPIKATUKO DU, ALDAKETA BAKARRAREKIN.



Gipuzkoako sagardogileen zuzendaritza taldea. Arantxa Eguzkiza (behean, eskuinean) lehendakaria da.

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEAREN UTZITZA

Arantxa Eguzkiza (Hernániko Iparragirre sagardotegia) izango da datozen lau urteotan lehendakari; Ibon Aburuza (Adunako Aburuza sagardotegia) lehendakariorde; Hur Astarbe (Astigarragako Astarbe sagardotegia) idazkari; eta Ainara Otaño (Astigarragako Petritegi sagardotegia), Gabriel Lizeaga (Astigarragako Lizeaga sagardotegia), Iñaki Bengoetxea (Irungo Ola sagardotegia) eta Pako Calonge (Donostia-Igeldoko Calonge sagardotegia) izango dira zuzendaritzako kideak. Ordezkoak berriz, Patxi Azkonobietta (Usurbilgo Urdaira sagardotegia) eta Napoleon Lertxundi (Usurbilgo Saizar sagardotegia).

**Sagardogileen Elkarteak ia zuzendaritza bera izango du datozen lau urteetan. Azken lau urteotako bidea jarraitzea izango al da helburua?**

Aurreko legealditik ia zuzendaritza osoa aldatu zen orain lau urte, eta denbora behar izan genuen Elkartearen eta sektorearen egoera aztertu eta jarraitu beharreko bidea ondo zehazteko. Gaur egun ondo sendotutako zuzendaritza bat dugu eta jarraitu beharreko ibilbidea garbi duena, eta datozen lau urteetan helburua izango da planifikatutako guztia martxan jarri eta indartzea. Esan beharra dago datozen lau urteetako ibilbidea zehazten

duen Berrikuntza Plan bat osatu duela Elkarteak, "HiruB" izenarekin (hiru "B": Berrikuntza, Beharra, Batera), eta bertan sektorerako 26 ekintza zehazten dira, baita Elkarteak izan behar duen izaera berria ere, Zerbitzu Gune Integral moduan. Beraz, gure ibilbide orria garbi daukagu, eta lau urteotako esperientzia ere bai, aurrera sendo egin ahal izateko.

**Sagardoaren irudia hobetzea zen Arantxa Eguzkiza buru duen zuzendaritza honek orain lau urte jarri zuen helburuetako bat. Bete al da?** Irudia hobetzearena etengabeko lan bat da; ez da egun

batetik bestera egin eta "bale" esateko gaia. Zenbait pauso eman dira bide horretan, gure sagardoaren onurak azaltzen dituen mezuak zabaltzea, adibidez, edo Eusko Label sagardoa ateratzea, edo bertako sagarra bertako sagardotegietan gelditzeko egiten ari garen ahalegina. Horrez gain, sagardo egunekin harreman estuagoan lan egiteko bideak proposatzen ari gara, herriz herri sagardo dastatzeak ematen eta abar luze bat. Denbora gutxian pauso bat aurrera eman dugula uste dugu, baina bide hau etenik gabea da eta guztion artean jarraitu beharrekoa.

**Sagardogileen elkarteak 34 urte bete ditu, eta sendotua zirudienean, haustura txiki bat izan da. Nola baloratzen duzue egoera berri hau?**

Lehenengoz eta behin esan behar da Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak 34 urte baino askoz gehiago dituela, nahiz eta ofizialki 1977an eratu. Badirudi gerra aurretik ere elkartearen zirela Gipuzkoako sagardogileak elkarlanerako.

Bigarren zatiari dagokionean, gaur egun 51 sagardotegi daude Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen, sagardotegi guztien %80 alegia, eta Euskal Herriko sagardo produktioaren %70 ordezkatzen dugu, 9 milioi litroko produktioarekin. Beraz, Elkarte oso sendo bat dugu. Egia da 2011n haustura txiki bat izan dela eta zenbait sagardotegi beste bide bat jarraitzea erabaki dutela, baina hori beti izan da Elkartearen, altak eta bajak beti izan dira. Guk geureari begiratu behar diogu eta Elkartearen eta sektorearen indartze bideak jorratu, eta horretan ari gara buru-belarri.

**Sagardoaren promozio eta komertzializazioa ulertzeko bi modu dira Eusko Label eta Gorenak markak. Zein iritzi du zuzendaritza honek eta bi egitasmoak uztartu ezinakin al dira?**

Berez, zerikusirik ez duten proiektuak dira Eusko Label eta Gorenak, baina kontsumitzaile oso nahastuta dagoela konturatu da Elkartearen, eta horrek kezka sortzen du:

Eusko Label sagardoa %100 bertako sagardorekin egindako sagardoa da, eta kalitate parametro batzuk betetzen dituena. Kalitatea Fundazioak ikuskatu eta zertifikatzen du Eusko Label sagardoa, hirugarren batek, eta garrantiazko merketan ezinbesteko baldintza da hori. Oraindik produktio mugatua du Eusko Label sagardoa, batetik sagastak eta sagardotegiak eskakizun berrietara egokitzen joan behar dutelako, eta bestetik merkatuak eta kontsumitzaileak ere pixkanaka produktua ezagutzen eta informetzen joan behar dutelako. 2011ko uztan honetan Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen hamazazpi sagardotegi dira Eusko Label sagardoa egin dutenak Bizkaiko eta Arabako beste bederati sagardotegiekin batera.

Gorenak sagardoa marka kolektibo bat da, bertako eta kanpoko sagardorekin egin eta zertifikaziorik gabea. Gaur egun hiru sagardotegi badaude Elkartearen Gorenak markako sagardoa egiten dutenak, baina marka hau Sagardo Mahaia Elkarteak daramate aurrera.

Eta oso kontuan izan behar den beste gauza bat, Gipuzkoako sagardorik gehiena bi marketatik kanpo dagoela gaur egun, eta sagardo horren guztia alde ere egin behar duela Elkarteak, orain arte sagardo ona izan dena, hemendik aurrera ere bala izango baita.

Garbi dagoena da bi proiektuak uztartzea zaila izango dela, oso planteamendu desberdinetatik abiatzen baitira eta izaera guztiz desberdina baitute. Gipuzkoako Sagardogileen Elkar-teak uste du kontsumitzaileari garbi azaldu behar zaizkiola gauzak, mezu nahasiek inaritze-ak inongo onurarik ez baitu eka-riko.


**Bertako sagarra helburu nagusietakoa al da?**

Dudarik gabe, kalitatezko produktu batez ari bagara eta helburua hori bada, bertako lehen-gaiaren alde lan egitea ezinbestekoa da. Bertako lehen-gaiaren aldeko apustu horretan, sagastiak egokitzen joateko beharra ikusten da sektorean, eta bide horretan pauso asko ari dira ematen: interesgarriak diren sagar motak aldatu, sagar mota bakoitza aparte biltzeko moduan planifikatu sagastia, sagastiak urtero sagarra eman dezan lan egin, produkzioak neurri bat arte hobetu... horrek poliki-poliki, sagastian ez ezik sagardoan ere hobetzeko bidea dakar, dudarik gabe. Eta bide horretan azpimarratu nahi dugu azken urteetan Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea saiakera garbi bat ari dela egiten Gipuzkoako sagarra bertan gera dadin, eta bide horretan Julen Lizzagak egiten duen lana ezinbestekoa bihurtu da: sagarra bildu, garbitu, bereizi, lotee-

tan banatu... sagargileak behar dituen zerbitzu guztiak eskaintzen ditu eta sagardogileak behar dituen kalitatea eta kopuru minimoa ziurtatu. Sagargile askok beren sagardotegia dute, urtero sagarra ematen dutenak, baina beste sagar asko da aldian behin azaltzen dena eta horri guztiari modu ordenatu batean irteera ematea ezinbestekoa da.

**Zein erronka ditu Elkartearen ibilbide berriak?**

Lehen aipatutako moduan HiruB proiektua garatzea izango da helburua, bertan baitaude bilduta jarraitu beharreko pausoak. Proiektu horietako zenbait dagoeneko martxan daude eta beste batzuk laster izango dira. Adibidez, Internet bidez sagardoa saltzeko web platafor-ma urtarriaren bukaerarako indarrean egongo da, [www.sagardo.com](http://www.sagardo.com) eta [www.sidranaturai.com](http://www.sidranaturai.com) helbideetan. Eusko Label sagardoa merkatuan dugu, Sagar eta Sagardo Turismoa garatzeko proiektuak gauzatzen ari gara, patsari irteera emateko I+G proiektuak gauzatzen ari gara (ikerkuntza eta garapena), sagardoaren kalitateari dagokion I+G proiektu gehiago ditugu planifikatuta eta gauzatu ahala jakitera emango ditugu beste hainbat proiektutan ere buru-belarri ari gara. Horrez gain, sagardoarentzako jatorri izendapena lortzeko pausoak ematen ere ari gara.



GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEAK UTZITA



**GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA**



**Betiko sagardoa**

**ELKARTEKO SAGARDOTEGIAK:**

**ABALTZISKETA**

ZALBIDE: 943 65 21 76

**ADUNA**

ABURUZA: 943 69 24 52

ZABALA: 943 69 07 74

**AIA**

IZETA: 943 13 16 93

SATXOTA: 943 83 57 28

**ALTZAGA**

OLAGI: 943 88 77 26

**ASTIGARRAGA**

ARTOLA: 637 095 679

ASTARBE: 943 55 45 27

BEREZIARTUA: 943 55 57 98

BUENAVENTURA: 943 35 73 22

ETXEBERRIA: 943 55 56 97

IRIGOIEN-HERRERO: 943 55 03 33

LARRARTE: 943 55 56 47 / 679123892

LIZEAGA: 943 46 82 00

MENDIZABAL: 943 55 57 47

OIARBIDE: 943 55 31 99

PETRITEGI: 943 45 71 88

REZOLA: 943 55 27 20

SARASOLA: 943 55 57 46

**ATAUN**

URBITARTE: 943 18 01 19

**AZPEITIA**

AÑOTA: 943 81 20 92

**DONOSTIA**

ARAETA: 943 36 20 49

ASTIAZARAN: 943 36 12 29

BARKAIZTEGI: 943 45 13 04

CALONGE: 943 21 32 51

URKIOLA: 943 21 01 68

**HERNANI**

AKARREGI: 943 33 07 13

ALBERRO: 943 55 00 19

ELORRABI: 943 33 69 90

IPARRAGIRRE: 943 55 03 28

ITXAS-BURU: 943 55 68 79

LARRE-GAIN: 943 55 58 46

OTSUA-ENEA: 943 55 68 94

RUFINO: 943 55 27 39

**IKAZTEGIETA**

BEGIRISTAIN: 943 65 28 37

**IRUN**

OLA: 943 62 31 30

**LESARTE - ORIA**

OTEGI: 943 36 50 29

**LEGORRETA**

AULIA: 943 80 60 66

**OIARTZUN**

BALEIO: 943 49 13 40

ORDO-ZELAI: 943 49 16 86

**ORERETA**

EGI-LUZE: 943 52 39 05

**URNIETA**

ALTUNA: 943 55 49 17

ELUTXETA: 943 55 69 81

EULA: 943 55 27 44

OIANUME: 943 55 66 83

SETIEN: 943 55 10 14

**USURBIL**

AGINAGA: 943 36 67 10

ARRATZAIN: 943 36 66 63

SAIZAR: 943 36 45 97

URDAIRA: 943 37 26 91

**ZERAIN**

OTATZA: 943 80 17 57